



Mohamed ABED-Jack GUEZ | AFP

 IKUSMIRA

PAREKORIK
GABEKO
SARRASKI
BATEN LAU
HILABETE

Datorren asteazkenean lau hilabete beteko dira Israelen urriaren 7ko erasoaren mendekua hasi zuenetik. Denbora tarte horretan lortu duen suntsipen eta sarraski maila ezin da duela gutxi gertatutako inongo gatazkekin alderatu. 35.000 pertsona baino gehiago hil ditu -8.000 oraindik hondakinen artean daude-, horietatik 8.000 haur baino gehiago. Etxeen erdia baino gehiago suntsitu du eta biztanleriaren erdia espazio txiki batean pila-tzera behartu du, janaririk gabe eta plastikoen azpian. Hildako haurren kopurua, ospitaleen kontrako erasoak, behartutako populazioaren tokialdatzea, gosea arma bezala erabiltzea, azpiegituren eta etxebizitzaren suntsike-ta masiboa... Lau hilabete hauetako egun bakar batean egindako ekintza oro erreakzio eta zigor gogorren zioa izango litzateke, baina krudeltasunarena ez da Gazako erasoaren salbuespen bakarra. Israelen zigorgabetasu-na ere bakarra da. Inon ez dira hain agerian geratu gehiegikeriak, soldadu israeldarrek beraiek ere zabaldu di-tuzte eta. Eta hala da, nazioarteko konplizitatea ere paregabea delako. Hegoafrikak Nazioarteko Justizia Auzi-tegian genozidioa salatzea izan da sarraskia geldiarazteko urrats nagusia. Israelen operazioa hasi zuenean bi hilabeteko inpunitatea kalkulatu zuen. Orain badaki mugagabea dela. Pablo RUIZ DE ARETXABALETA

